

Manolo Alvarez: "EFEBren etorkizuna oparoa da"

Zeinek ez du Manolo Alvarez ezagutzen? Beti futbol munduan murgildua, 17 urte daramatza mutil zein neska, gazte nahiz zahar, era guztietako taldeak zuzendu dituela. Gaur egun, prefereente mailan ari den Ermuko lehen taldea zuzentzen ari da. Hainbeste urte futbolearen eman ostean, bere taldeari eta gehien bat EFEB Ermuko Futbolarien Elkarte Bultzatzailearen txapelketari buruz galdetu diogu, bere iritzia eman diezagun.

DROGETENITTURRI- ZER MODUZ DOA ZUEN DENBORALDIA?

Manolo Alvarez- Beno, ez doa horren gaizki. Etxean sendo gabiltza, nahiz eta etxetik kanpo partidu asko galdu ditugun. Azkenaldian zenbait partidutan zorte txarra ere izan dugu, gehienetan esperientzia falta ere nabaritu dugu-eta.

D.- TALDEA AZKENENGO URTEETAN ASKO ALDATU DA.

M.A.- Bai, hala da. Gaur egun talde oso gaztea dugu. Azken bi urteetan lau edo bost jokalarik utzi egin behar izan dute taldea, eta askotan bigarren taldeko jokalariz hornitu beharrean izan dut taldea.

D.- MAILAZ IGOTZEKO AUKERARIK EPE LABURRERA?

M.A.- Tira, horretarako gauza batzuk argi izan behar dira; alde batetik taldea jokalariz ongi hornitua egon be-



Manolo Alvarezek hainbat urte daramatza Ermuko futbolaren alde lanean.

har da, eta gaur egun lehen taldea 14 jokalariz soilik dago osatua, nahiz eta 18kin hasi genuen denboraldia. Bestetik, Ermuko futbol buruzagiek igotzeko konpromezua hartu beharko lukete, horretarako beharrezko den dirua jarritz. Gainera, gaur egun taldea oso gaztea dugu. Denborarekin lortu daiteke, ez dira emaitzak presaka

eskatu behar.

D.- EFEBRI BURUZ ZEIN IRITZI DUZU?

M.A.- Ideia ona dela uste dut. Kirola egiteko beste aukera bat da. Nahiz eta egia den gure taldeari jokalaria kentzen dizkiola, normala da, zeren jokalariek eurek nahia-go dute astean behin partidu bat jokatzeko inolako entrenamendu edo disziplinarik gabe.

D.- JOKALARIAK IKUSTERA EDO BEGIRATZERA JOATEN ZARA BETI-ONDORA?

M.A.- Bada sarritan joaten naiz. Egon naiz zenbaitzuekin nire taldean jokatzeko eskatuz, baina ez dute arrazoi batengatik edo besteagatik onartu izan.

D.- ZEIN IKUSTEN DUZU AURTENGO TXAPELDUN?

M.A.- Guztion ahotan dabilen Anvil eta Castilla-Leon taldeen artean egon daitekeela uste dut.

D.- AZKENIK, ZEIN ETORKIZUN IKUSTEN DIOZU EFEBRI?

M.A.- Une honetan jende kopuru handia dago bertan murgildua, gainera talde asko, antolakuntza ona... Etorkizun ona ikusten diot; gainera, jende gaztea gero eta gehiago ikusten dut hor aurrean sartuta.

*Testua- Asier Ibaibarriaga
Argazkia- Santos Vega*

ESKA EHUNAK

- Jantziak egiten dira
- Ebaketa ta jantzigintzazko klaseak ematen dira

Goienkale, 9 • Tlf. 17 44 69

ZARAUZTARRA JATETXEA

LEHEN, ORAIN
ETA BETI

- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana

